

BIOEF BERRIKUNTZA ETA IKERKUNTZA **SANITARIOAKO EUSKAL FUNDAZIOAK** **ALZHEIMER-A IKERTZEKO PROIEKTUETARAKO** **2022KO DIRU-LAGUNTZAN DEIALDIA**

Xedea

Deialdia Alzheimer-en gaixotasunari eta beste dementzia batzuei buruzko ikerketara bideratuta dago, zehazki, gaixotasunaren prebentzio, diagnostiko, tratamendu eta etiologia ikertzera, baita azterlan epidemiologikoetara eta pazienteentzako prestazio asistentziala nahiz psikosoziala hobetzera ere. Eta Alzheimer-en gaixotasunari eta beste dementzia batzuei buruzko ikerketa soziosanitariora eta antolaketa-ikerketara ere bai, pazienteen eta senideen bizi-kalitatea hobetuz.

Erakunde onuradunak

ZTBES sarean ziurtatutako eragileek lankidetzaproiektuak aurkezteko aukera dute, hainbat erakunderen artean eginak, erakunde onuradunak izan (2. artikulua honetan aurreikusitakoaren arabera) edo ez izan, beharrezkoak badira eta proiektua garatzeko gai, DLoren 11.3 artikuluan xedatutakoaren arabera. Lankidetzaproiektuen kasuan, lankidetzahitzarmen bat formalizatu beharko da erakunde parte-hartzaile guztien artean, erakunde horien legezko ordezkarien sinadura guztiarekin, proiektuaren egikaritzea bermatzeko eta emaitzak ustiatzeko adostutako baldintzak zehazteko.

Proiektuen ezaugarriak:

- Deialdi honen ondorioetarako, ikerketa biomedikotzat hartzen da oinarrizko ikerketa (gaixotasunera bideratua), ikerketa klinikoa (pazienteari bideratua), ikerketa epidemiologikoa, osasun publikoan eta osasun-zerbitzuetan, bai eta osasuna edo ikerketa biomedikoko prozesuak eta teknologiak hobetzera bideratutako garapen teknologikoa ere.
- Edozein kategoriatan akreditatutako ZTBESko agenteak izango dira onuradunak, eta ezinbesteko baldintza izango da ZTBESen osasun-ikerketako zentroen kategorian akreditatutako agente batek gutxienez parte hartzea.
- Iraupena: **2 edo 3 urte**.
- Modalitate bakarra ezartzen da, eta, ikerketa-taldea zein den, honako hauek baloratuko dira:
 - a) Talde gazteak sustatzea: ikertzaile nagusia (IN) 1977an edo geroago jaioa izaki, lehenago IN gisa lehia-deialdi bidez finantzatutako proiektuetan parte hartutakoa ez den taldeen proiektuak.
 - b) Ohiko taldeen ikerketa biomedikoko proiektuak: ikertzaile nagusi batek zuzendutako ikerketa-taldeen garatutako proiektuak, apartatuetan ezarri diren baldintza orokorrak bete behar dituztenak, eta tasun espezifikorik ez dutenak.

Ikertzaile Nagusiak eta Ko-IN-ak bete beharreko baldintzak:

- UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztu duen une beretik eta proiektua gauzatu bitartean.
- Proiektu bakarra aurkez dezake ikertzaile nagusi gisa.

Ikertaldeko hideak bete beharreko baldintzak:

- UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztu duen une beretik eta proiektua gauzatu bitartean.

Bideratutako zenbatekoa: 1.104.477,46 euros.

Aurrekontua prestatzeko jarraibideak:

UPV/EHUUn aurkeztutako eskaerek zeharkako kostuen %10a jaso beharko dute aurrekontuan (zuzeneko kostuen gainean kalkulatuta).

Eskaerak aurkezteko era:

Eskaerak elektronikoki aurkeztuko dira. Eskaera bakarra aurkeztuko da proiektu bakoitzeko. Proiektu koordinatuen kasuan koordinatzaile gisa jarduten duen erakundea arduratuko da eskaera bidaltzeaz. Ikerketaren arloko Errektoreordetzako langilegoa arduratuko da eskaerak aplikazioaren bidez aurkezteaz UPV/EHU koordinatutako proiektu baten lider gisa doan proiektuen kasuan. Horretarako, ikertzaile nagusiek deialdiko 8.6. artikuluan adierazitako dokumentazio guztia bidali beharko dute convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera, hori egiteko **azaroaren 11era arteko** epea izango dutelarik.

Eranskinetako txantiloiak [esteka](#) honetan jaits daitezke.

Eskaerak aurkezteko epea:

2022ko azaroaren 21ra arte

Informazio gehiago:

https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2022/alzheimer_laguntza_bioef/web_01-tramite/eu/

BIOEFekin harremanetan jartzeko:

María Pertika E-mail: pertika@bioef.org Tel.: 94 453 61 41	Miriam Amezaga E-mail: miriam@bioef.org Tel.: 94 453 10 33	Olatz Sabas E-mail: olatz@bioef.org Tel.: 94 453 61 43
---------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------

UPV/EHUrekin harremanetan jartzeko:

Tel.: 94 601 80 08

E-maila: convocatorias.dgi@ehu.eus